

# *Borondate oneko*

*Inuzentziaren ama  
euskalduntsa da :  
inuzentzia biolatua.*

J. A.



# *Hildakoak berriro*

Hilak berriz ere. Letra batzuk  
Irakurtzen ditut periodikoan.  
Frase korrekto bat.

Beren aitak eta beren amak eta  
beren beste pertsonak  
altxatzen zaizkit, hildakoaren  
ondoan, itzal isilak.

Kalea lanera ta lanetik doa.  
Egunoroko ordua Euskadin.

Urruti, Euskadin, lau hildako gehiago  
bizi dira gaur jendearekin.  
Doaz, datoz, isil-isilik  
beren heriotzarekin,  
guzien artean,  
gaberdirantz.

J. A.